1937 - 1987

50.

Berrogeitamargarren urteurrena

BUSTURIA

1988 Abuztuaren 5 ean

Orain dela urte bete Busturiko Udalak, Guda zibilean fusilatutako sei busturitarren omenez, Obelisko bat eraikitzea erabaki zuen. Orduan gertaera zoritxarreko horien 50. urteurrena betetzen zen.

Datorren Abuztuaren 5 ean, monumentoaren inaugurazioa izango da. Horregaitik aukera edo monumentu ontzat hartu dugu, garai hartan gertatutakoa eta Laurentino Benito Sangradorek egindako monumentoaren esanahia azaltzeko baliagarria izango dela liburuxka hau.

Busturiko Udala

Hace un año el Ayuntamiento de Busturia acordó erigir un Obelisco, en homenaje a los seis busturianos fusilados en la Guerra Civil. Cumpliase entonces el 50 aniversario de tan desgraciados hechos.

El 5 de Agosto próximo, se procederá a la inauguración del monumento. Con tal motivo hemos considerado oportuno editar este folleto explicativo de lo que ocurrió en aquellas fechas y del significado del Obelisco, obra de D. Laurentino Benito Sangrador.

Ayuntamiento de Busturia

El proyecto de este monumento, ha sido inspirado en los obeliscos que adornan plazas y avenidas, siempre con carácter conmemorativo de homenaje y recuerdo.

En memoria de los que murieron aquel 5 de Agosto de 1937 y en recuerdo de todos los desaparecidos, que este Obelisco sirva para acercarnos más, con amor hacia ellos.

En su construcción en forma de pilar con cuatro caras iguales un poco convergentes, para terminar en punta piramidal achatada, tiene una altura de diez metros.

Por motivos históricos relacionados con los hechos de aquel 5 de Agosto ha sido modificado en este caso, la base del jardín así como la fuente, ambas en vez de ser circulares, han sido realizadas en forma hexagonal. Sobre la fuente una placa de bronce, que servirá de recuerdo a las generaciones futuras.

Como autor de la obra, sólo deseo expresar mi agradecimiento a todos los que de forma desinteresada han contribuido a la realización de la misma.

Lauren



ARMADA FRANKISTAREN SARRERAN; ERREPRESIOA ETA HERIOTZAK BUSTURIALDEAN

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

Berrogeita hamar urte igaro ondoren, garaia da jadanik, Euskal Herrian 1936.eko guda denboran zein ondoko urteetako jasan zen errepresioaz zenbait ikerketa eta gogoeta egiteko, gizon emakume batzuen oroitzapena eta izen ona, besterik ez bada ere, gaurkotzeko eta gogoratzeko, akats berberetan etorkizunean gutxienez ez gaitezen erori, Euskadi era eta moeta guztietako jendearen kabia izan dadin, begi bako armen erahilketak, fusilamenduak eta sortarazten duten ezkutu ezineko beldurra, ez direlako ez gizarte aske baten oinarriak ez eta elkarren arteko diferentziak eta liskarrak soluzionatzeko, modua. Ondoren kontatuko dudan historia latza, halako ondoriora eraman nau, eta esandukoaren erakusgarri dela uste dut.

Errepreiosari buruzko lan ikerketak, urriak dira. Geure lurraldeari begiratu ezkero, lanik aipagarriena ezbairik gabe, Altaffaylla Kultur taldeak buruturikoa dugu: *Navarra 1936, De la esperanza al terror* (1) Gainontzeko Euskal Herriaz ez dugu pareko lanik. Gure lan hau hastapen bat besterik ez du nahi izan, oinarrizko lehen saioa. Berez eskualdeko ikuspegi orokorra eskaini nahi nuen, baina oraingoz ezinekoa izan zait beharrezko nuen informazio kontrastatua biltzea, herri bakoitzean gertatu zena, jokamolde jakin batzuen barruan, desberdina izan zelako. Halako egoera kritikoetan tokian tokiko komunitateren historiak uste den baino baldintzapen gehiago bait du. Horregatik nahiz eta berri batzuk izan eskualdeko herri guztietaz, oraingo honetan Busturiko herrira mugatuko naiz, bertan

(1) Altaffaylla kultur taldea: *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Tafalla 1986, 3, Vol. I, II.
Reig Tapia, A.: *Ideología e historia; sobre la represión franquista y la guerra civil*. Madrid, 1984.
Sole Sabate, J.M.: *La repressió franquista a Catalunya* (1938-1953).
Hernández García, A.: *La represión en la Rioja durante la Guerra Civil* (3 tomos). Logroño 1984.



Primer «Aberri Eguna» celebrado en Bilbao. La foto se sacó junto al Monumento al Sagrado Corazón.

1)
2) Julián BASTERRECHEA
3) Tiburcio RETOLAZA
4) Ramiro ECHEVARRIA
5) Agustina UGALDE
6) Doroteo CALZADA
7) Justina PORTURAS
8) Eusebia CALZADA
9) Martina LEGUINA
10) Vicenta CEARRETA

gertaturikoa alde batetik giro baten adierazpen nabarmenena bertan aurkitzen delako, informazio sakona jaso ahal izan dugulako eta azken batean errepresioa heriotzez antolatu zelako.

Gure galdera zehatza hauxe izan da, zer jazo zen armada frankista-faxista sartu eta ondoko egunetan. Gogora dezagun 1937.eko apirilaren 26.an itsasadarretik gora sartu eta Hitlerren egazkinek, Francoren zerbitzuan gerra egiten zebilenek, Gernika txikitu zutela, batez ere populazio zibil baten txikizioa burutzen zeudela, hau da jende arruntaren aurka guda zabaltzen zen, sekula ikusi gabekoa ordurarte. Geroztik, planeta gerrero honetan, populazio zibila, indefensoa, helburu militartzat sistematikoki hartuko da. Apirilaren 30.an, faxistak demokraziaren aurka burruka armatuan ari ziren aurrenengo talde frankistak, Busturian sartu ziren. Artetxeneko jauregian eta inguruko etxeetan geldítu ziren goi graduazioko militarrak, Solluberantz abiatzeko asmoz.

1. Sorburuak

Ikerketa hau burutzeko, batez ere abozko berrietan oinarritu gara. Beharbada, berrien iturri guztiak ez ditugu agortu; horregatik zabalik jarraitzen dugu, guk idatzitakoari zehaztapenak edo ñabardunak egiteko, dokumentazio berriak hala eskatuko balu (2). Horrez gainera udaleko aktetan jasotakoa aztertu dugu, garaiko egunkarietan atera zena ere miatu dugu eta azkenik dokumentazio judiziala ere, ez guk nahi izan dugun baina, oraingoz ez dugulako aurkitu, arakatu dugu.

2. 1936.eko giro politikoa Busturiako herrian

Busturiako herrian, mende hasieratik eta hogeiko hamarkadan, indar politikoak bitan banatzen ohi ziren: «Baltzak» eta «surijjek»; bizkaitarren ikuspegitik, hau da Sabino Aranaren jarraitzaileentzat, bizkaitarra ez zena, baltza zen, bardin monarkikoa, errepublikanoa zein karlista izan. Gizartearekiko ikuspundua erabat esklusibista zen eta biztanleak halabeharrez printzipio jakin eta «benetazko» bakar batzuen araucra bere bizimodua eta ekintza antolatu behar zuen.

Arrotegitarrek, mende hasierako jauntxoak alegia, eduki zuten nagusitza politikoa eta ekonomikoa: Errestaurazio monarkikoaren jokoan ari

(2) Berrien laguntza gabe lan hau burutu ezinekoa izango zitzaidan:
Eusebia, Roman Zearretaren emaztea. Jesusa Urrutxua, 92 urte, heriotz zigorrera kondenatua. Juan Ojinaga, baserritarra, Batzokiko burua Errepublika garaian. Luisa Zubillaga, Julio Mendieta medikuaren emaztea. Dibina Pastora Zearreta: Andres Zearretaren alaba. Tomas Uriarte, Jági Jagi mogimenduaren zabaltzailea Busturian. Elisa Kalzada: Doroteo Kalzadaren alaba. Karmele Lekunberri, 66 urte, D. Lekunberriren alaba. Maria Luisa eta Bizente Alvarez.

ziren alderdi liberal kontserbadoreen partaide. Monarkikoen biltokia Aispeko konpiteriako etxean aurkitzen zen; bizkaitarrena, Arginzonizen etxean zegoen bitartean. Urteak igaro hala, monarkikoek eta karlistek, lehenagoko arerioak, bat egingo dute, espainiar abertzaletasunak elkarturik, Euskadiko abertzaleen aurka, nahiz eta guztiak erlijio katolikoaren oinarriak onartu.

Errepublika garaian hiru talde bereiztuko dira: Bizkaitarrak (PNV), eskuindarrak (monarkiko eta karlista izenekoak) eta errepublikanoak. 1936.an alkatea Juan Antonio Arginzoniz, PNV.koa zen, zinegotzi gehienak bezalaxe, bat izan ezik, errepublikanoa berau (3).

PNV alderdiak batzoki bi zituen, Aispen eta Altamiran. Hala ere, afiliatuak ez ziren asko (4). Bestalde errepublikanoen izenpean, ezkerreko, bizkaitarren eta monarkikoen aurkakoak biltzen ziren. Altamiran, Gorriñoren tabernan, elizondoan, elkartzen ziren. Herriko medikua, Julio Mendieta, E. Mendoza maisua, Sabino Aranaren adiskidea izana, politikan ere kideko, errepublikano sutsuak ziren. Usaba eta errentadoreen arteko liskarretan errepublikanoak errentadoreen alde sarritan agertu ziren. Azkenik monarkikoak tradizionalista espainarrekin batera, karlistak barneko zirela, errepublika garaian nahiko txokoraturik eta bazterturik agiri ziren; Busturia mailan hauteskundeetara aurkeztu ere ez ziren, botoa PNV.koentzat eskatuz, katolikotasunak agindurik.

Legalitate demokratikoaren aurka jarri zen Francoren altxamendua, gertatu zenean, ondorengo hileetan Errepublikaren defentsarako batzordeak antolatu ziren, eta Busturian ere, Adolfo Borda presidentea zelarik, alderdien ordezkariekin batera eratu zen delako batzordea, egoitza gaur egunean Aispen zenbakiz dagoen etxearen behealdean. Baina 1936.eko azaroan, Udalak hartu zituen bere gain defentsarako ardura guztiak.

Uda zen legez, Sukarrieta eta inguruetan, udatiar pila zegoen, gehienak eskubitarrak faxismoaren zalcak. Arratsaldetan eleizara joaten ziren, Francoren aldeko otoitzak egiten. Batzuk detenituak izan ziren, baina dirudienez herri mailan barik, Bilbotik agindua heldu zelarik. Busturian ge-

---

(3) Jesusa Urrutxuak hala kontatzen digu, tribunalaren aurrean izandako elkarhizketa: Hasieran pentsatzen zuen ezer txarrerako ez zela eta.

—Buenas tardes, ni eneban besorik altza, ikasi be es geadun ein de

Como no trae usted la insignia nacional.

—Como hasta ayer que han entrado usteles he llevado la nacionalista de ayer a hoy no he podido sentir otra idea.

—Siéntese. Por la sencillez y la naturalidad que ha dicho se le puede perdonar.

Ondoren galderak: Nortzuk batzartzen ziren tabernan, zergatik, zertarako, eta antzekoak. Baina Jesusaren eritzian okerreko galderak eta salakuntzak ziren, Tabernan mocta guztietako jendea biltzen zen eta.

Orduan beste militarrak esan zuen: «Que pena el mal querer lo tienen ustedes aquí mismo».

(4) Busturiako Udaleko akta liburuak: 1937.eko maitzak 20, 157 orr.

rra garaian inor ez zen detenitua izan. Juan Ojinagak, Errepublika garaian Busturiko batzokiko burruaren esanetan «pentsa be iñor detenidu bidaniko» eta Arginzoniz alkateak esan ei zuen «ni alkate nasen artean esta gure errijen inor detenidukо» eta horrelako nahian zebiltzanei «zeuok egin baiña nire isenien es» erantzun zien. Horrela bada, frankisten aldekoak eta betidaniko eskubitarrak herritarren artean aurkitu eta jakin, faxista batzuk herrian ezkutaturik zeudela, eta inor ez zen detenitua izan. Adibidez Palmira Arrotegi eta bere senarra Gabriel Learreta, monarkiko eta eskubitar deklaratuak, beldurpean ikaraz bizi baziren (Gabrielek etxe atzeko orman eskifara bat eukan jarrita inor baletor handik mendira ihes egiteko) ez zuten inolako kalte pertsonalik jasan. Areago oraindik, Euskal Gobernuak baekian Busturian faxista batzuk ezkutaturik zeudela, ostatuetan eta etxeetan. Adibidez Erramonaneko ostatuan denetarik zegoen eta Hipolito Alvarezek Durangoko abogadu bi gorderik izan zituen etxean («eurek bisirik atera eskero gero beren bisijen esen faltarik esteula eukingo») eta beste bost eskubitar, inor ez zela hil egin behar eta, Txukenen falanjista bat eta Karlotak eta Jesusak Bilbon mehatxaturik egon zen enpresari bat ezkutatu eta Lagako oudartzara bidali zuten, milizianoak etxe inguruan miatzen egon ziren bitartean. Horrez gainera, herriko mojak eskolatik bidaltzeko ahaleginak izan zirenean, Zearretatarrak eta beste batzuk monjen alde atera ziren. Laburbilduz, Euskadiko Gobernuaren babespean guda giroan egon arren, herrian ez zen gertatu iskanbila aipagarririk, PNV.koen asmoa eta eritzia nagusiturik azken batez, gudak utz zezakeen neurrien barnean, nahiko egoera baketsua inposatu zen. Jakina, guda garaian, herriko guztiei, eskubitar edo rrepublikano izan, irratiak, prismatikoak, eskopetak eta abar Errepublikaren aldeko batzordeak errekisatu egin zizkien, aipaturiko batzordearen egoitzan gorderik egon zirela, faxistak sartu arte. Palmira Arrotegiri, telefonoa moztu eta eduki zituen hiru automobilak kendu eta beharbada dirua ere eskatu ote zioten susmoa zegoen.

3. Frankisten sarrera

1937.eko apiritaren 29an gauez eta 30.an goizez, lehenengo motoristak bandera monarkiko española eramaten zutela sartu hala, herriko monarkikoak, eskumatarrak eta ez zirenetariko batzuk, beharbada beldurrez edo, errepidera atera ziren ongi etorria adierazi asmoz. Batzuek, Sukarrieta inguruan mendekuaren dehiadarra egiten dute, beste batzuek aldiz, katoliko legez mendekurik ezin daitekela egin, adierazten duten bitartean.

Herritik, ebakuazioan, hainbat pertsonak alde egin zuen. Ehun bat pertsona, populazioaren % 20 bai gutxigorabehera, Bilbo jausi oudoren 75 herrira bihurtu zirelako eta beste batzuk atzerrira eta ezkutaturik jarraitzen zuen.

Eskualde mailan, gartzela bi improbisatu ziren: Gernikako Agustinoen ikastetxean eta Bermeoko batzokian.

Busturia eta Sukarrietaren mugan dagoen harrizko etxe galantaren beheko gelan berehala hasi ziren eskumako buruzagiak batzarrak egiten, errepresioa eta zerrendak antolatzen. Besteak beste, Madrilleko militar bat zegoen fiskal lana burutzeko, bere senide batzuk hil egin zituzten eta dirudienez odol egarria zekarren; Rikardo Danborenea Castroviejo, Bermeon zegoen komandante militarraren Eusenio Garcia de Villarrek, «Delegado de mi autoridad en Pedernales y Busturia» izendatu zuen; batzarkidetariko bat zen. Busturiako idazkaria eta Arrotegiren ondasunen administradorea zen Vicente Gorrifio; Gabriel Learreta eta Sukarrietako alkatea izango zena J.C. Bilbao sarri askotan agertzen ziren aipaturiko batzartokian.

Bar Pacon, (gaur eguneko itxasbegi tabernaren tokian aurkitzen zen), handik lasterrera militarrak behin behineko tribunal bat osotu zuten, mahai luze bat, Jesukristoren gurutze haundi bat zutela eta bandera bat.

Bar Pacoren aurrez aurre, Palas izeneko tabernan Karlota Urrutxua, Busturiko emakumeen idazkaria eta bere ahizpa Jesusa, PNV.koa ere, bizi ziren eta tribunalaren aurrera joan behar zutela agindu zieten. Interrogatorio bat jasan zuten eta aurrerantzean udaletxera eguncan birritan, goizeko 11.etan eta arratsaldeko 6.etan joan beharra ezarri zieten, behin behineko presondegian zeudela (3)

Horrez gainera, ahizpa bakoitzari 20.000 pezetako multa ordaindu beharra; Jesusa Urrutxua, sartu hala, Julio Mendieta mendikua ateratzen zen, buru makur diru zigor gogorra jarri zioten, 25.000 pezeta inguru.

Jendea arrapatzen eta detenitzen ibiltzen zirenak, ordurarte mutiko koskorrak praka laburdunak ziren, herritarrak edo eta kanpokoak. Baina korreadun uniformeak jantzirik, pistola aldean daricla, herriko jaun eta jabeak ziren.

Pipas boteroa, Motriku, Julio Mendieta, Bermeon deteniturik egon ondoren, batzuk azken biak behintzat Gazteizera eraman zituzten. Gasteizeko epaileak lehen monentuetako gorrotoak eta odol egarriak haseturik, piska bat bareturik zeuden. Julio Mendieta eta «motriku», errepublikanoa lehena eta PNVkoa bigarrena 6 hilabeterako Errioxara desterratu zituzten. Julio Mendietak, adiskide baten bidez epailea erosi egin zuen bost mila pesetaren trukez. Herrira itzuli zenean berriz ere mediku plaza kendu zioten eta libreki aritzen zen. Hala ere herria bere alde jarri zen, berari deitzen ziotela. Aspaldidanik, 1925.tik, tirabira gogorrean ari zen. Palmira Arrotegiren bigarren senarrarekin; G. Learreta medikua zen eta Busturiako plaza bereganatu nahi zuen. Baina alperrik. Herriko sinadurak Julio Medietaren alde izaten ziren. Horregatik bere denuntziaren iturria seguru asko Palmira Arrotegi eta G. Learreta izango bide ziren.

Bestalde Bermeoko komandante militarrak, udal jestora batzordea

Larrazabaleko ikastolan bedeinkapena. Román Zearreta erlojuan onduan lehenengo eskumara.



Aberri Eguna 1931

1937.eko maiatzaren 19.an izendatu zuen, eta urrengo egunean, Ricardo Danboronea Castroviejo Busturia Perdernaleserako «delegado gubernativo» mahaiburu zela, ondoko hauek bere kargua hartu zuten: (4)

Alkate: Dario Gomez Apraiz. Itsasuntzi merkanteetako kapitaina. Guda hasieran, Errepublikaren aldeko ekintzak egin zituen, armak itsasuntziz garraiotu eta abar. A.N.V.ren zalea zen batzuen ustez, beste batzuk errepublikanotzat zutela. Dirudienez, kargu hau G. Learretari eskaini zioten baina uko egin zion.

Alkate ordea: Jose Irujo Beunza, Palmira Arrotegiren txoferra.

Bigarren alkate ordea: Luis Santamaria Mentxaka.

Bokalak: Rufino Fradua, Antonio Santamaría, Justo Oreja. Azken hau betidaniko tradizionalista edo karlista zalea.

Bien bitartean, ekainaren 19.an, Bilbao jausi eta gero, herritik ihesean alde egin zutenak, Busturira bihurtzen hasi ziren: Ezer txarrik egin gabekoak zirenez gero, Euskadiko gobernuaren garaian herrian bake giroa mantentzen saiatu ondoren etsaiak ere beste horrenbeste egingo zutenaren esperoan, alde egiteak, familia, lana eta abar abandonatzea suposatzen bait zuen, berriz etxera itzultzea iruditu zitzaien bidezkoena.

Mola generalak berriz, altxamendua prestatzen zegoela, agindu garbi bat eman zuen. Ekintza egun gutxitan burutu eta irabazi behar zen, errepresio gogorra eta kupida gabekoa ezarriz, beldurraren beldurrez, erreazionatzeko gaitasunik ez dadin gerta. Bere aita kontrarioen lerroan aurkitu ezkero ere, hil egingo zuela. Jakina jende arruntaren gogora, honelako asmoen berririk ez zen heldu, ez horrelakorik jazo zitekeenik ere ez. Baina ondoren ikusiko dugunez, eskualde mailan eta bereziki Busturian, zapalkuntza gogorraren teknika martxan jarri zen, militarren eraginez edo eta herritar batzuen ekimenez?

Andres Zearreta, Doroteo Kaltzada eta Roman Zearreta, zinegotzi ohiak eta Batzokiko burua azkena, ihesean, Derioko ahaide batzuen baserrian ezkutatu ziren, baina 1937.eko ekainaren 21.an etxera bihurtzea erabaki zuten, inori ezelango kalterik ez ziotenela egin eta, inolako beldurrik gabe. Beste batzuk aldiz, herrian ezkutaturik edo Gipuzkoara, Frantziara edo errublikaren aldeko lurraldeetara ihes eginda zeuden (5). Herrira heldu bezain pronto, udaletxe berrian aurkezpena egin zuten eta zortzigarren egunean, San Pedro egunez, meza ostean detenituak izan ziren (6) Ekainaren 30.an Demetrio Lekunberri, tabernaria, Hipolito Alvarez, pintorea,

---

(5) J.A. Arginzoniz, alkatea, A. Uriagereka, zergen biltzailea, Frantziara joan ziren eta denboragarrenean bihurtu ziren, kalterik jasan gabe. Beste batzuk, Donostialdean edo Katalunya alderantz joan ziren ihesean. Herrian bertan zulo baten ere ezkutatu ziren, Tomas Uriarte eta abar.

(6) Detenitzen ibili zire herritarren artean: Jesus Irujo, Jose Irujo alkate ordearen semea, Eduardo Ugalde Learreta, 16-17 urteko mutikoak.

Barbara Busturiko emakumeen lehendakaria, Karlota Urrutxua idazkaria, Jesusa Urrutxua, detenituak izan ziren. Hauek frankistak sartzerakoan herrian gelditu ziren. Gero aipatuko ditugunak ere egun hauetan izan ziren detenituak Bermeoara eramanak eta batzokian denak elkarren gainean, eduki zituzten. Gero, kamioi batetan, Bilbaora, Larrinagako gartzelan sartu zituzten. Bidean zihoazenela, Gernikan gelditu ziren eta goardiak edo soldaduak esan zien: Hara zer egin duzuen Gernikan, dena apurtu eta erre. Zornotzara heldu eta beste horrenbeste: Begira nola utzi duzuen herria deseginik.

Ondoren aipatuko ditugun pertsonak, lege hauste edo delito batez salatuak izan ziren «de rebelion».

Bilbon, 1937.eko uztailaren 18.an, Consejo de guerra permanente delakoak, «procedimiento sumarísimo de urgencia» 81 zenbakia, 27 Juzgaduan, Maria Diaz de Haron epaituak izan ziren.

Benetan harrigarria da, berez legalki finkaturik zegoen gobernu demokratikoaren aurka errebelatu zirenak, legalitate demokratikoan zinegotziak izan zirenak, «de rebelión» salukuntzaz epaitzea, zinismoaren azken mugan zeuden. Bestalde sententziak ere zera adierazten zuen: «al iniciarse la subversión roja-separatista» hau da ikuspegi honen arauera, lehenago subersioa zegoen eta guda gero hasi zen. Jakina da honezkero, 1936.an nola eta nortzuek planifikatu zuten golpe militarra.

4. Epaiketa

Busturiko 12 biztanle izan ziren epaituak eta epaiketara iritsi ziren salakuntzak edo denuntziak, herriko pertsonak sinatuak zeuden, bereziki udaletxe berrian aurkitzen zirenak izango dira denunzianterik haundienak. Salakuntzak gutxi gora behera denak dira antzekoak, 1937.eko uztailaren 2.an sinatuak. Fiskal lanetan ari zirenak militar kanpotarrak ziren: José García eta Tomás Casanueva.

Hara ondoren zehatz mehatz akusatu bakoitzaren gaineko salakuntzak: Andrés Zearreta Urrutia: 36 urte, arotza, ezkondua, 1931.an jadanik zinegotzia. Herriko salatzaileak: Darío Gómez Apraiz eta Santiago Gezuraga (88 urte baserritarra).

Salakuntzak: «Tomando parte en requisas, organización de milicias, abastecimiento y persecución de las personas de orden». Salakuntza hau zinegotzi guztiei leporatzen zioten.

«Propagandista del separatismo». Horrez gainera alde egin zuen frankistak sartzerakoan eta gero itzuli.

Doroteo Kalzada Ispizua: 39 urte, baserritarra, errentadorea, hiru semealaba, eta zinegotzia 1931.tik PNV.ren izenea.

Salatzaileak: Darío Gómez Apraiz, Andrés Irakulis Basterretxea, 56 urte, Zaratamokoa, itsasüntzietako makinista.

Salakuntzak: Aurrekoaren antzekoak eta horrez gainera «uno de los elementos separatistas más exaltados del lugar... decía que a todos los fascistas había que cortarles el cuello».

Feliziano Zenarruzabeitia Bilbao: 47 urte, baserritarra, ezkondua. Zinegotzia (PNV) Rufino Arrospide Omagogeskoa: 36 urte, baserritarra, etxejabea, PNV.ko zinegotzia. Manuel Legarreta Urkiaga: 45 urte, baserritarra, errepublikanoen izenean zinegotzia.

Roman Zearreta Urrutia: 45 urte, arotza, lau semealaba, PNV.ko batzokiko presidentea.

Salatzaileak: Santiago Gezuraga Etxebarria eta Luis Santamaria Mentxaka (50 urte, Mundakarra, itsas gizona).

Salakuntzak: PNV.ko uribatzarreko presidentea zela. Errepublikaren aldeko batzordearen puntaidea. «Dicho comité imponía sanciones pecuniarias a las personas desafectas al gobierno de Bilbao...recluta de jóvenes para engrosar el ejército separatista». Ez da salatzen inor detenidua izan zenik.

Karlota eta Jesusa Urrutxua Urizar ahizpak: 32 eta 38 urte, ezkongabeak.

Salatzaileak: Bar Pacoko burua eta Jose Irujo, Palmira Arrotegiren txoferra.

Salakuntzak: Separatismoaren aldekoak zirela. «Rumoreándose en el mismo (tabernan) de haber formulado denuncias contra personas afectas a nuestra causa como el médico D. Elías Mota, al que los rojos separatistas tuvieron detenido y preparado para fusilarle».

Demetrio Lekunberri Intxaurraga: 50 urte, hiru semealaba, tabernaria.

Salatzaileak: María Dolores Fernández Scala, Consuelo Santurtun Martínez de Goya eta Darío Gómez Apraiz.

Salakuntzak: «Exaltado del separatismo local y cree que afiliado al PNV» Ez zegoen afiliaturik. Se le oyó decir que a todas las derechas había que matarlas... se reunían los elementos dirigentes de Bilbao y que del mismo lugar salió la lista de las personas que posteriormente fueron detenidas en Pedernales aunque no puede afirmar si intervino en su confección», «negándose a darles de comer porque la que subscribe era 'un fascista' y por lo tanto no había comida».

Horrez gainera, espia bat eduki omen zuen etxean, eskumatarrak kontrolatzeko (7).

---

(7) Andrazko espia hori, lan bikoitza egiten zuen seguru asko, zeren Gasteizen epaitu zutenean, berehala libre utzi zuten.

Florencio Bilbao Agirre: 43 urte, Bermeotik Busturiko Goiherrira ezkondua. Salatzailetariko bat Pedro Olano auzukidea.

Palmira Arrotegiren errentadorea, usabandrearen basoen zaintzailea, artzaia eta baserritarra. Errepublikanoa.

Salakuntza: «organizador de mitines en los caseríos inmediatos, cuya propaganda la ejercía en los términos más exaltados incitando a los campesinos a la apropiación ilícita de propiedades ajenas...revolución de octubre 1934 se distinguió como agente de enlace entre asturianos y los gudaris instalados en el Monte Sollube intentaron unirse a los revolucionarios de entonces».

Hipolito Alvarez Urrutia: 45 urte, biru semeala ta, pintorea, errepublikanoa (8). Salatzaileak: A. Irakulis eta seguru asko P. Olano. Hara zer idatzi zuen gutun batetan: «Yraculis y Santamaria y Santi landa y pedro Olano los que mas an fastidiau a todos son esos cuatros que nunca an echo cosa buenas, esos paresen a los de forua» (31-7-37).

Salakuntzak: «Izquierda errepublikanan afiliatua egotea, «de los más rojos comunistoides del pueblo».

Fermin Apraiz Goirizelaia: Baserritarra, usaba, 61 urte.

Badirudi salakuntza guztiak esku berak idatzi ditucla, topikoz beterik daudela, agiri agirian nabari bait da. Irakurri ditugun guztietan ez da agiri inork kalte pertsonalik jasan ote zuenik. Errekisak edo multak, guda garaian, gutxienezko zerbaitzat hartu behar dira. Sukarrietako mediku batek badirudi preso harturik edo egon zela, baina azken batean ez zitzaion ezer gertatu. Bestalde aipagarria da, Txatxarramendiko hoteletik udatiarrak bildaldu zituztenean, Donostiatik, Trintxerpetik eta abar ebakuazioan heldu zirentzat egokiturik, asko Demetrio Lekunberriren ostaturantz joan ziren. Udatiarren artean gehienak eskuma eskumakoak ziren, faxismoaren zaleak.

Judizioaren hasierarte inork ez zekien zergatik hartu zituzten preso. Bertan konturatu ziren salakuntzen garrantziaz eta arriskuaz. Fiskalak bere lana burutu zuencan, akusatuei eskatu zien ea norbait duten beraien alde deklaratzeko. Roman Zearretak Mallorát jauna, Irura bat elektra indarraren injinadorea aipatu zuen, baina honek bakarrik informatu zuen esanez «que era un obrero honrado». Andres Zearretaren alde Caballerok adierazpen ona egin zuen. Arazo hauetaz eta azken eguetako larritasunen agiri legez Andres Zearretaren gutun esanguratsu bat dugu eta oharrean bere osotasunean ematen dugu (9) Jesusa Urrutxuak eta bere ahizpa Kar-

---

(8) Juan Ojinagak esaen digu, Hipolitok isilean botoa PNV.ri emoten ziola, nahiz eta agirian, bere usaba errepublikanoa zelako eta gero bere denunziantea, haren alde agertu behar zuen.

(9) Ondoren agertzen dugun gutuna egocraren adierazpen zehatzak eskaintzen duenez gero, oso osorik ematen dugu:

Larrinaga, 28 de julio de 1937.

Mi apreciada esposa: Acabo de recibir tu carta donde veo que todos estáis bien, yo bien gracias

lotak, salakuntzak ukatu egin zituzten eta ondoko hau erantzun «Nosotras no tenemos más pecado que decir que somos nacionalistas». La verdad nada más. No hay nadie que pueda hablar nada más». Horrez gainera, J.L. Olalde ezkutaturik eduki zutela ere jakin arazi zuten (10). Zearretatarrak ere alegatu zuten beraiek berez, herria zaintzeko zeudela inori ezelango txarrik egin gabe.

Demetrio Lekunberrik: Bera ez zela ezer ere ez, neutrala baino ez.

Florenzio Bilbaok, «Kaiser» bere alegazioan esan omen zuen: «He de desir que no soy nasionalista, no soy comunista, no soy nada cómo voy a ser? yo he sido siempre guarda de montes de Arrotegi cómo voy a ser yo comunista? Yo tengo mi caserío, tengo mis terrenos, como voy a desir que soy comunista?»

Akusatu guztientzat sinesgaitza zitzaien han bertan entzun zituzten salakuntzak. Azken batean, guda garaian ezer txarrik egin bakoak zirenez, ezin zuten sinestu kondenadurik izango zirela. Beste kodigo eta pentsakizun arras diferentea zabaldurik zegoen akusatuen artean. Ez ziren konturatzen guda garaian eta bereziki faxisten jokabidea, beldurrean oinarritzen zela eta beraz, errepresio gogorra, bere teknika politikoaren ekintza bes-

---

a Dios, supongo que habrás echo (sic) todo lo que te he dicho pero no sé si has recibido todas las cartas que te he mandado y además aquí no sabemos nada, en estos casos hay que consultar con personas que entienden en estos asuntos, como por ejemplo con los de Lecumberri y saber los trámites que hay que hacer, le hemos indicado a Manuel Apraiz (Presape) una idea que estarás enterado creyendo que habrá revisión, nos han acusado de haber recojido armas y repartir a los rojos, perseguir a las derechas y hablar mal del régimen, ser propangandistas y como no sabíamos nada hasta el juicio y no podemos defendernos ni siquiera hablamos nada, uno de los testigos es Santiago Guezuraga el tío y también de Roman, ahora no sabemos si harán rebision de la causa que es repetir la misma causa con la misma denuncia o reformada la denuncia que fue muy fuerte o si confirmarán la misma causa por eso combiene enterarse que creo que se entera por Abogado defensor, esto te dirán los de Lecumberri; en el juicio no había informado D. Juan de los Ríos y combiene que informe ni tampoco los testigos de Doroteo Felix, Fermín y respeto a Román pasó que primeramente nos decían que haber si tenemos algún conocido que nos podía informar y como no sabíamos que el asunto sería tan grave Román nombró ingeniero de la Electrica Irura Bat Sr. Mallorrat y claro como Mallorrat no conoce la actuación de Roman informó diciendo que era un obrero ourado, ayer me enteré que D. Antolín y Pablo Elesgaray habían informado para Fermín Apraiz y como de Doroteo también es D. Antolín, que le Pregunte Leona y te entere, D. Juan Ríos es de los dos, Caballero me informó bien, supongo que habrás ido donde D. Gabriel Learreta porque combiene siempre estar bien con todos, note descuides de decir nada ni hablar mal de nadie según estoy enterado el plazo para presentar informes es de 15 días por consiguiente termina el lunes a las 11 de la mañana, también tengo entendido que el Sr. Juez que es D. Juan Pablo Gorriño tienen que informarnos, puedes enterarte con Petra la de Ramona ahora estoy más tranquilo pero he pasado unos días intranquilos en los demás todos estamos muy bien deseosos de estar en casa con la familia cuando te venga bien me mandas un poco de javon y apargatas con recuerdos a toso y con un abrazo a la hija y ti soy tu inolvidable Andres Cearreta.

Tienes que tener en cuenta que todo loque te digo deves (sic) de tener en cuenta nohay que obrar en contra de la autoridad que son ideas y nada más.

(10) *La Gaceta del Norte*, 1937.eko uztailaren 20.an, honela emaitza zuen judizioaren albistea:

Causa contra unos concejales y vecinos de Basturia

A las once y media se vio otra vista en la sala segunda ante el Tribunal militar, para responder

terik, ez zela, bizitzaren balorea ezik, heriotz beltzaren arabera gizartea antolatuz. Egun berean, Jiménez Caballero jaunak, faxismo espainolaren ideologo nagusienetarikoak, Portugaleten mitin batetan esaten zuen: «Bilbao estaba atrofiado, intoxicado por los discursos de ese miserable de Indalecio Prieto y de ese chocolatero de Aguirre, que en lugar de discursos os daban opio y cocaína para vuestras inteligencias. Os decían que la España nuestra os fusilaría implacablemente y la realidad es bien otra. Vosotros comprobáis que habéis encontrado el perdón, la justicia» (11), Aztertzen ari garen adibideak, ez du zoritxarrez horrelakorik frogatuko.

5. Salatarien nortasuna eta zergatien bila

Militar falanjista kanpotarrak alde batera utzita, herriko pertsona baten sinadura behintzat beharrezkoa zen salakuntza aurrera ateratzeko.

---

y fallar la actuación de doce vecinos de Busturia, varios de los cuales ostentaron el cargo de concejales de aquel Ayuntamiento, durante el dominio rojo-separatista.

Se da lectura a la prueba documental.

Rufino Arróspide, Feliciano Zarruzabeitia y Doroteo Calzada, concejales de Busturia destituidos el año 1934, se reintegraron el cargo al advenimiento del Frente Popular, en 1936, estando acusados de haberse incautado de las armas que había en el pueblo, repartiéndolas entre los elementos rojo-separatistas. La prueba para estos procesados resulta variable.

Demetrio Iecumberri, de Busturia, dueño de una taberna, está acusado de que en diversas ocasiones se negó a facilitar géneros a vecinos tachados de fascistas y alguna vez sirvió de comer a miembros del llamado Gobierno de Euzkadi.

Román Ciarreta Urrutia, actuó de presidente del Partido separatista en Busturia. Intervino en la formación del Comité de Defensa y es un propagandista exaltado de dicho partido. Realizó requisas, impuso multas e invitó a los mozos a enrolarse en el Ejército rojo-separatista.

